



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# 2021 Jarduketa-plan eragilea

4. #gazteplana#  
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO



# Aurkibidea

1. Sarrera	3
1.1. Aurrekariak eta testuingurua	3
2. Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuekin bat egitea eta sinergiak	5
2.1. Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana beste plan estrategiko batzuekin lotzea	5
2.2. Eusko Jaurlaritzaren IV. Planak genero berdintasunaren estrategiarekin duen koherentzia	8
2.3. Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak GJHei egindako ekarpena. 2030 xeedekin bat etortzea	8
3. Euskadiko gazteria 2021	15
3.1. Joera demografikoak	15
3.2. Hezkuntza	17
3.3. Enplegua	21
3.4. Emantzipazioa eta etxebizitza	26
3.5. Osasuna	29
3.6. Gizarte-ekintza eta berdintasuna	34
3.7. Parte-hartzea, balioak eta kontsumoa	37
3.8. Aisia, kultura eta kirola	40
4. 2021eko Jarduketa Plana	46

# #01

## Sarrera



# 1. Sarrera

## 1.1. Aurrekariak eta testuingurua

Pasa den 2018ko urtarrilaren 30ean, Eusko Jaurlaritzaren Bilkuran, IV. Gazte Plana onartu zen, 2018-2021 aldian gazteriaren arloko erreferentzia-tresna gisa.

2018-2021 IV. Gazte Plan honek erakunde honek gazteriarekin duen **ekintza eta konpromisoaren** jarraipena adierazten du, eta helburu nagusia gazteen **emantzipazioaren** alde lan egitea da, horiek oinarritzko proiektuak eraiki eta garatu ditzaten, eta, aldi berean, proiektu kolektiboetan **parte hartzeko gaitasuna** gara dezaten.

Horretarako, egituraren eta konposizioaren ikuspegitik, guztira 5 ardatz estrategiko, 10 arlo, 23 helburu eta 60 ildo estrategiko daude. Ildo hauek, planean parte hartzen duten **Gobernu Zuzendaritzen** urteko plan operatiboaren bidez zehazten dira.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako IV. Gazte Plana, "Euskadiko III. Gazte Planaren Marko Orokorra 2020" -rekin lerrotuta dago. Bertan, beharrak, lehentasunezko erronkak eta helburu estrategikoak zehazten dira, baita 2020ra arte epe ertainerako esku-hartze ildoak ere. Esparru honen helburu nagusia politika publikoen papera handitzea da, benetako aukera-berdintasuna lortzeko, eta gazteek beren bizitza modu autonomoan eta askean garatzeko duten gaitasunean aurrera egiteko, etorkizuneko gizartearen oinarri gisa.

2021. urtea hasita, beraz, urteko programazio horri ekiten zaio, Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza bakoitzak horren inguruan gogoeta egin dezan, eta bertan, **gauzatu beharreko jarduerak, aurrekontua, jarduera bakoitzerako ebaluazio-adierazleak, helburu objektiboak, balio objektiboa eta helburua ezartzen dira**, bai eta jardueraren jarraipena egin ere, 2021 igaro ondoren ebaluazioa egin ahal izateko.

Dokumentu honek urteko plan operatibo honen zehaztasuna jasotzen du, Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza arduradunek programaren martxan jartzean duten ardura zehaztuz.

Sarrera moduan, lehenengo atala **IV. Gazte Planaren sinergia edo ahokadura berrikustean fokatu da**, Eusko Jaurlaritzaren baitan sustatutako gainerako plan estrategikoei eta ekimenei dagokienez. Horretarako, IV. Gazte Plana indarrean sartzen den unetik onartutako estrategiak identifikatu dira, eta programa programatikoan jasotako harreman-matrizea eguneratu da. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIB) duen lotura berrikusi da.


2021 programazio hau definitzen duen momentua testuinguruan jartzeko, Euskadiko Gazteriaren Euskal Behatokiak 2021an Euskadiko Gazteriaren inguruan egindako txostena gehitzen da, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzaren mendekoa.

Azkenik, eranskin bat aurkezten da, eduki honekin:

- *IV. Gazte Planaren sinergien matrizea*: Eusko Jaurlaritzak 2021era arte indarrean dituen programen eta estrategien azterketa xehatua eta eguneratua jasotzen du, bai eta IV. Gazte Planarekin partekatutako helburu eta ildo estrategikoekin duten erlazioa ere.

# #02

## Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuekin bat egitea eta sinergiak



## 2. Eusko Jaurlaritzaren beste plan batzuekin bat egitea eta sinergiak

### 2.1. Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana beste plan estrategiko batzuekin lotzea

IV Gazte Plana onartu eta indarrean sartu ondoren, Eusko Jaurlaritzak zenbait estrategia onetsi ditu eta, ondorioz, beharrezkoa da **IV Gazte Planaren eta Eusko Jaurlaritzaren plan eta ekimen guztien arteko baterakidetasun matrizea eguneratzea.**

IV. Gazte Plana bat dator, lehenetsunez, honako plan eta ekimen hauekin:

- **Ekonomia eta enplegua:**
  - Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa 2017-2020
  - EAEko Enplegu Estrategia 2020
  - Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020
  - EAEko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Estrategia 2015-2020
  - Euskadiko 2020rako Ekintzailtza Plan Interinstituzionala
- **Berdintasuna:**
  - Euskadin soldata-zorra murrizteko estrategia eta ekintza-plan operatiboa
  - Euskal hezkuntza-sistamarako hezkidetzaren II. Plana, berdintasunerako eta tratu onerako bidean (2019-2023)
  - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana XI. Legegintzaldirako (2018-2021)
  - Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana
- **Hezkuntza:**
  - Heziberri 2020 Plana, hezkuntza-sistema hobetzeko
  - GLEAren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Ekintza Plana
  - Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren aldeko Hezkuntzako Programa Osagarria 2017-2020
  - Unibertsitate Sistemaren Plana 2019-2022
  - Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko 2016-2020 aldirako II Plana.
- **Gizarte-politikak eta integrazioa:**
  - EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 aldirako
  - EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019
  - Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020
  - Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana 2018-2021
  - Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021
- **Ingurumena eta kontsumo jasangarria:**

- Mugikortasun Jasangarriaren Gidaplana 2020
- Kontsumobideren 2018-2020 aldirako Plan Estrategikoa
- **Osasuna eta kirola:**
  - Mugiment 2020 programa, jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa murrizteko
  - Euskadirako Osasun Politikak 2013-2020
  - Adikzioen VII. Plana 2017-2021
- **Emantzipazioa:**
  - 2018-2020 Etxebitza zuzendaritza plana
- **Euskera eta kultura:**
  - Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020
- **Zientzia eta teknologia:**
  - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2020 Plana
- **Zeharkako programak:**
  - XI Legegintzaldiko Gobernu Programa
  - 2018-2021 euskal estatistika plana

Koadro honetan jaso dira Eusko Jaurlaritzaren planen eta ekimenen artean ematen diren sinergia estrategikoak, zeinak IV. Gazte Plana osatzen duten **10 jarduketa-esparruekin** identifikatzen baitira. **Kolore sortaren bidez** bien arteko **sinergiaren maila** irudikatu da; zenbat eta **estuagoa programaren eta esparruaren arteko erlazioa**, orduan eta **biziagoa kolorea**. Horrela:

- **Tonu laranja erlazio-maila handia** adierazten du; hau da, bi planek **estrategia berbera** partekatzen dute ardatzetatik, eta hartara, IV. Gazte Planak «aterki» strategiaren funtzioa betetzen du kolektibo gaztearentzat.
- **Tonu horiak erdibideko erlazioa** adierazten du. Hau da, IV. Gazte Planak eta aztertzen den plan estrategikoak **helburu estrategiko komunak** dituztela esan nahi du.
- **Tonu berdeak erlazio txikiagoa** adierazten du, eta, batez ere, **ildo estrategiekin eta jarduketekin** du zerikusia.
- **Zuriz** irudikatzen diren hutsuneek adierazten dute **ez dagoela erlazorik** edo jarduketa-esparru zehatz batean **ez dagoela sinergiarik**.

Planes GOVA Vigentes 2017-2020-	EJE 1: Emancipación y Autonomía			EJE 2: Bienestar y	EJE 3: Igualdad e	EJE 4: Participación y Compromiso Social		EJE 5: Socialización		
	Empleo	Vivienda	Educación	Salud	Acción Social	Participación	Consumo	Cultura	Ocio	Deporte
<b>Economía y empleo</b>										
Plan Interinstitucional de Emprendimiento de Euskadi 2020										
Programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017 - 2020										
Estrategia Vasca de Empleo 2020										
Plan Estratégico de Empleo 2017-2020										
Estrategia Vasca de la Seguridad y Salud en el trabajo 2015-2020										
<b>Igualdad</b>										
Estrategia y Plan Operativo de Acción para reducir la Brecha Salarial en Euskadi										
Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo										
VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres para la XI Legislatura (2018-2021)										
II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato (2019-2023)										
<b>Educación</b>										
Heziberri 2020										
Plan de Acción de Educación para la Transformación Social de la AVCD										
Programa Complementario de Educación en Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación 2017 - 2020										
Plan del sistema universitario 2019-2022										
II Plan de Atención Educativa al Alumnado Inmigrante en el Marco de la Escuela Inclusiva e Intercultural 2016-2020										
<b>Políticas sociales e integración</b>										
IV Plan Interinstitucional de apoyo a las familias de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el período 2018-2022										
Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2016-2019										
Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017 - 2020										
IV Plan Director de Cooperación al Desarrollo 2018-2021										
IV Plan Vasco de Inclusión 2017-2021										
<b>Medioambiente y consumo sostenible</b>										
Plan Director de Movilidad Sostenible 2020										
Plan Estratégico de Kontsumobide 2018-2020										
<b>Salud y deporte</b>										
Programa Mugiment 2020										
Políticas de Salud para Euskadi 2013-2020										
VII Plan de Adicciones 2017 - 2021										
<b>Emancipación</b>										
Plan Director de Vivienda 2018-2020										
<b>Euskera y cultura</b>										
Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020										
<b>Ciencia y Tecnología</b>										
Plan Vasco de Estadística 2018-2021										
<b>Programas transversales</b>										
Programa de Gobierno XI (2016-2020)										
Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación (PCTI) 2020										



## 2.2. Eusko Jaurlaritzaren IV. Planak genero berdintasunaren estrategiarekin duen koherentzia

4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, ezartzen duen bezala bere 4. Artikuluan, euskal administrazio publikoek **genero-ikuspegia kontuan hartu behar dute bere politika eta ekintza guztietan, desberdintasunak ezabatu eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu** orokorra adieraziz. Genero ikuspegiaren integrazioa emakumeen eta gizonen baldintzak, nahiak eta beharrak modu sistematiko batean kontuan hartzea bezala ulertu daiteke, desberdintasunak ezabatu eta politika eta ekintza guztietan berdintasuna sustatzeko helburuak eta jarduerak ezarriz maila guztietan eta planifikazio, exekuzio eta ebaluazioaren fase guztietan.

Hori dela eta, **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak**, Eusko Jaurlaritzaren IV Gazte Planaren garapenean parte hartu du, plan honek Eusko Jaurlaritzaren **berdintasunerako strategiaren zehaztutako helburuekin bat egiteko**, zeinek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII Planean (2018-2021) definitzen diren.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako Berdintasun Unitateak bi txosten egin dituzte, **IV. Gazte Planaren eta berdintasun-estrategiaren arteko koherentzia berresten dutenak**. Era berean, erakunde honek aktiboki parte hartzen du Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren inplementazio operatiboan, Euskadiko Gazte Planaren Sailarteko Batzordean eta haren ordezkari teknikoan parte hartuz.

## 2.3. Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak GJHei egindako ekarpena. 2030 xeedekin bat etortzea

IV Gazte Planak Garapen Jasangarriko **17 helburuetako 11ari laguntzen die**, hauekin lerrotatuz. Horien artean, batez ere azpimarratu behar dira **kalitatezko hezkuntza, lan duina eta hazkunde ekonomikoa eta desberdintasun sozialen murrizpena**, objektibo eta helburu komun ugari dituztelako haien artean.

Jarraian, zuzeneko harremana duten GIHak, Nazio Batuekin bat datorren definizioa eta lotura zuzenena duten xedeak jasotzen dira:



**Pobrezia-agerpenen barruan** hauek sartzen dira: **gosea, malnutrizioa, etxebizitza duinen falta** eta **oinarrizko beste zerbitzu** batzuen eskuragarritasun mugatua, besteak beste, hezkuntzarena edo osasunarena. **Diskriminazioa** eta **gizarte-bazterkeria** ere sartzen dira. Pobreziarekin amaitzeko helburua gauzatzeko, ekonomiaren hazkuntzak inklusiboa izan behar du, enplegu jasangarriak sortzeko eta berdintasuna sustatzeko.

*Harremana duten xedeak*

- 1.2 2030. Urterako, definizio nazionalen arabera pobrezian, bere dimentsio guztietan, bizi diren gizon, emakume eta adin guztietako haurren proportzioa erdira behintzat jaitea
- 1.3 Nazio-mailan guztiontzako babes sozialeko sistema eta neurri egokiak ezartzea, gutxieneko mailak barne, eta, 2030erako, pertsona pobre eta ahulen babes zabala lortzea.
- 1.5 2030erako, pobreen eta ahultasun-egoeretan dauden pertsonen erresilientzia sustatzea eta klimarekin eta beste asaldura eta hondamen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko batzuekin lotutako muturreko fenomenoaren eraginpean egotea eta ondoriozko ahultasuna murriztea.

- 1.b Nazio-, eskualde- eta nazioarte-mailan araudi-esparru sendoak sortzea, pobreen aldeko garapen-estrategien oinarriaren gainean, genero-kontuak aintzat hartzen dituztenak, pobreziarekin amaitzeko neurrietan inbertsio bizkortua bultzatzeko



Elikaduraren eta nekazaritzaren sektoreek garapenerako giltzarri diren konponbideak eskaintzen dituzte, **gosea eta pobrezia deuseztatzeko ezinbestekoak**. Ondo gauzatuz gero, **nekazaritzak, basogintzak eta akuikulturak janari nutritiboz horni dezakete** planeta osoa. Horrez gain, **diru-sarrera egokiak sor ditzakete**, landako jendearen garapenari lagun diezaioke eta ingurumena babes dezakete.

#### Harreamana duten xedeak

---

- 2.1 2030erako gosearekin amaitzea eta pertsona guztiek, bereziki pobrezia- eta kalteberatasun-egoeran daudenek, edoskitzaroan dauden haurrak barne, urte osoan elikadura osasungarria, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.
- 2.2 2030erako, malnutrizioaren modu guztiekin amaitzea, eta, beranduenez 2025ean, nazioartean hazkundearen atzerapenaren eta 5 urtetik beherako umeen ahultasunaren gainean hitzartutako erronkak lortzea, eta nerabeen, haurdun daudenen eta bular-emaile diren emakumeen eta adineko pertsonen nutrizio-beharrei erantzutea



Azken hamarkadetan **aurrerapen handiak** egin dira **bizi-itzaropena handitzeari** eta **haurren eta amen hilkortasunarekin lotutako heriotza-kausa ohikoenetako batzuk murrizteari** dagokienez. Halaber, **hobekuntzak** lortu dira **ur garbiaren sarbidean eta saneamenduan, malariaren murrizketan, tuberkulosian, poliomielitisean** eta **GIB/HIESaren hedapenean**. Hala ere, askoz ekimen gehiago behar dira gaixotasun-sorta zabal bat erabat desagerrarazteko eta osasunari buruzko gai iraunkor eta sortu berriei aurre egiteko.

#### Harreamana duten xedeak

---

- 3.3 2030erako, HIESaren, tuberkulosiaren eta malariaren izurriekin eta aintzat hartu ez diren beste gaixotasun tropikal batzuekin amaitzea eta hepatitisari, uraren bidez transmititutako gaixotasunei eta transmiti daitezkeen beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
- 3.4 2030erako, heren batera murriztea transmititu ezin diren gaixotasunen ondoriozko heriotza-tasa goiztiarra, prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea
- 3.5 Substantzia adiktiboaren abusuaren prebentzioa eta tratamendua indartzea, estupefazianteen erabilera desegokia eta alkoholaren kontsumo kaltegarria barne.
- 3.7 2030erako, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea, familia-plangintzakoak, informaziokoak eta hezkuntzakoak barne, eta ugalketa-osasuna sartzeko estrategia eta programa nazionaletan.



**Kalitatezko hezkuntza** bat lortzea da pertsonen **bizitza hobetzeko** eta **garapen jasangarrirako** oinarria. Aurrerapen handiak lortu dira hezkuntzaren eskuragarritasunaren hobekuntzari – maila guztietan– eta eskolatzetasen areagotzeari dagokienez, batez ere, emakumeen eta nesken kasuan. **Gutxieneko alfabetatze-maila neurri handian areagotu da**, baina ahalegin gehiago egin behar da hezkuntza unibertsalaren helburuen lorpenean

aurrerapen handiagoak lortzeko. Adibidez, **nesken eta mutilen arteko berdintasuna** lortu da munduko haur-hezkuntzan, baina herrialde gutxi dira helburu hori hezkuntzaren maila guztietan lortu dutenak

#### Harremana duten xedeak

---

- 4.1 Hemendik 2030era bitarte, haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntza amaitzen dutela ziurtatzea; doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar du, eta ikaskuntza-emaizta egokiak eta eraginkorrak ekarri behar ditu.
- 4.2 Hemendik 2030era bitarte, haur guztiek lehen haurtzaroan eta aurre eskolako hezkuntzan arretarako eta garapenerako kalitatezko zerbitzuak eskura ditzaketela ziurtatzea, lehen hezkuntzarako prest egon daitezen
- 4.3 Hemendik 2030era bitarte, gizon eta emakume guztiek kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi mailakoa eskuratzeko berdintasunezko sarbidea dutela ziurtatzea, unibertsitate-irakaskuntza barne.
- 4.4 Hemendik 2030era bitarte, nabarmen areagotzea enplegua eta lan duina eskuratzeko eta ekintzailtzarako beharrezko gaitasunak, batez ere teknikoak eta lanbidekoak, dituzten gazte eta helduen kopurua.
- 4.5 Hemendik 2030era bitarte, genero-desberdintasunak ezabatzea hezkuntzan, eta berdintasunean oinarritzen den sarbidea ematea irakaskuntzako maila guztietan eta lanbide-prestakuntzan pertsona ahulenei, desgaitasunen bat duten pertsoneri, herri indigenei eta ahultasun-egoeran dauden haurrei barne.



**Generoen arteko berdintasuna** ez da soilik funtsezko giza-eskubide bat, baizik eta **mundu baketsua, oparoa eta jasangarria lortzeko** beharrezko oinarria. Emakumeei eta neskei **berdintasuna bermatuz gero hezkuntzarako, arreta medikorako, lan egokirako eta politikaren zein ekonomiaren arloko erabakiak hartzeko** prozesuetara sartzean, ekonomia jasangarriak bultzatuko dira eta gizarteari eta gizateriari, oro har.

#### Harremana duten xedeak

---

- 5.1 Mundu guztian emakume eta neskatoen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzea
- 5.2 Emakume eta neskato guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzea eremu publiko eta pribatuetan, sexu-salerosketa eta sexu-ustiapena eta beste ustiapen mota batzuk barne.
- 5.4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera.
- 5.6 Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala ziurtatzea, baita ugalketa-eskubideak ere, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren Ekintza Programarekin, Pekineko Ekintza Plataformarekin eta aztertze konferentzien azken dokumentuekin bat adostutakoaren arabera.
- 5.a Emakumeei baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna eta lurraren jabetza eta kontrolerako eta ondasunak, finantza-zerbitzuak, herentzia eta natura-baliabideak eduki ahal izateko eskubide-berdintasuna ematen dieten erreformei ekitea, lege nazionalekin bat etorritik
- 5.b Teknologia instrumentalaren erabilera hobetzea, bereziki, informazioaren eta komunikazioen teknologiarena, emakumeen ahalduntzea sustatzeko.

- 5.c Politika zuzenak eta genero-berdintasuna sustatzeko lege aplikagarriak onestea eta indartzea, emakume eta neskato guztien genero-berdintasuna eta ahalduntzea sustatzeko, maila guztietan.



Taxuzko lana lortzeko aukerarik eza, inbertsio aski eza eta kontsumo baxuak direla eta, gizarte demokratikoen azpian dagoen **oinarrizko kontratu soziala higitzen ari da**: hain zuzen, guztiok **aurrerapena partekatzen dugun eskubidea**. Garapen ekonomiko jasagarria lortzeko, gizarteek baldintza egokiak sortu beharko dituzte pertsonen **kalitatezko enpleguak eskura ditzaten**, ekonomia sustatuz eta ingurumena kaltetu gabe. Lan egiteko adinean dagoen populazio osoarentzat ere lan-aukerak egon beharko dira, lan-baldintza duinekin.

#### Harremana duten xedeak

- 8.3 Garapenera bideratutako politikak sustatzea, honako alderdi hauei babes emango dietenak: ekoizpen-jarduerak, lanpostu egokien sorrera, ekintzailatza, sormena eta berrikuntza; eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen eraketa eta hazkuntza sustatzea, baina finantza-zerbitzuak eskuratzearen bidez ere.
- 8.5 Hemendik 2030era bitarte, enplegu osoa eta produktiboa eta taxuzko lana lortzea emakume eta gizon guztientzat, gazteak eta desgaitasunen bat dutenak barne; eta balio bereko lanarengatik ordainsari berdina eman dadila lortzea.
- 8.6 Hemendik 2020era bitarte, nabarmen murriztea enplegurik ez duten eta ikasten edo gaitzen ari ez diren gazteen proportzioa.
- 8.7 Berehalako neurri eraginkorrak hartzea lan bortxatuarekin amaitzeko, amaiera ematea egungo esklabotasun-moduei eta pertsonen salerosketari, eta haurren lanaren forma okerrenak (errekutatzea eta haur soldaduak barne) debekatu eta kenduko direla bermatzea; eta, hemendik 2025era, amaiera ematea haurren lanari, bere forma guztietan.
- 8.8 Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabekoa sustatzea langile guztientzat, migratzaileak barne, eta, bereziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituztenentzat.
- 8.b Hemendik 2020ra bitarte, gazte-enplegurako mundu-mailako estrategia bat garatzea eta martxan jartzea, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Enplegurako Munduko Ituna aplikatzea.



Diruu-sarrerei dagokienez, **herrialdeen arteko desberdintasunak murriztu** dira, baina herrialdeen barnean handitu egin dira. Gero eta adostasun handiagoa dago ekonomiaren hazkundera ez dela nahikoa pobrezia murrizteko, ez bada inklusioa eta ez baditu kontuan hartzen garapen jasagarriaren **hiru dimentsioak**; hau da, **ekonomia, gizartea** eta **ingurumena**. Desberdintasunak murrizteko asmoz, gomendatu da populazio babesgabe eta baztertuen beharrei arreta berezia jartzen dioten **politika unibertsalak** aplikatzea

#### Harremana duten xedeak

- 10.2 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-inklusioko indartzea eta sustatzea, beren adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa, egoera ekonomikoa edo beste edozein egoera edozein dela ere.
- 10.3 Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, baita horretarako diskriminaziozko legeak, politikak eta praktikak kendu egin behar badira ere, alde horretatik egokiak diren legeak, politikak eta neurriak ezartzeko.
- 10.4 Politikak ezartzea (bereziki, zergei, soldatei eta gizarte-babesari lotutakoak), eta

pixkanaka gero eta berdintasun handiagoa lortzea.



Asko dira hiriak mantentzeko arazoak, lurraren eta baliabideen gainean presiorik egin gabe **enpleguak eta oparotasuna sortzen jarraitu** nahi baldin bada. Hirien **arazo arruntak** honakoak dira: **pilaketa, oinarrizko zerbitzuak emateko funtsen gabezia, etxebizitza egokien urritasuna eta azpiegituren narriadura.**

*Harremana duten xedeak*

- 11.1 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak, seguruak eta arrazoizkoak izan ditzatela bermatzea, eta auzo marjinalak hobetzea
- 11.2 Hemendik 2030era bitarte, pertsona guztientzako garraio-sistema seguru, arrazoizko, irisgarri eta jasangarria izateko aukera ematea, batez ere, garraio publikoa areagotuz eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen beharrei arreta berezia eskainiz (emakumeak, haurrak, desgaitasunen bat dutenak eta adineko pertsonak)
- 11.7 Hemendik 2030era bitarte, berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera unibertsala ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat



Kontsumo eta ekoizpen jasangarria egiteko, **baliabideen erabilera eraginkorra, eraginkortasun energetikoa eta azpiegitura jasangarriak** sustatu behar dira, eta **oinarrizko zerbitzuen eskuragarritasuna**, enplegu ekologiko eta egokiak eta guztiontzako **bizi-kalitate hobea** erraztu behar dira. Horren aplikazioak laguntza ematen du garapenerako plan orokorrak lortzeko, ekonomiari, ingurumenari eta gizarteari loturiko etorkizuneko kostuak murrizteko, lehiakortasun ekonomikoa

*Harremana duten xedeak*

- 12.2 Hemendik 2030era bitarte, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.
- 12.3 Hemendik 2030era bitarte, erdira murriztea txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean alferrik galtzen diren per capita elikagaien kopurua, eta ekoizpen eta hornikuntzako kateetan elikagai-galerak murriztea, uztaren ondorengo galerak barne.
- 12.5 Hemendik 2030era bitarte, nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebenitu, murriztu, birziklatu eta berrerabiltzeko jardueren bitartez.
- 12.8 Hemendik 2030era bitarte, mundu osoko pertsonen beharrezko informazioa eta ezagutzak dituztela bermatzea, garapen jasangarrirako eta naturarekin bat datorren bizimodua izateko.



Helburu hau **klima aldaketa eta haren ondorioei aurre egiteko** premiazko neurriak hartzera zuzenduta dago. Klima aldaketa kontinente guztien herrialdeei eragiten die, **euren ekonomian, eta pertsonen eta komunitateen bizitzan eragin negatiboa sortuz**. Etorkizunean, ondorioak okerragoak izango direla espero da. Eguraldi ereduak aldatzen ari dira, itsas mailak igotzen ari dira, klima-gertaerak gero eta muturrekoak izaten ari dira eta berotegi-efektuko gasen isuriak historiako maila altuetan daude. Honen ondoan, ezer egiten ez bada, munduko azaleraren batez besteko tenperaturaren igoera 3 gradu ingurukoa izan liteke

*Harremana duten xedeak*

- 13.3 Heziketa, sentsibilizazioa eta giza eta erakundearen gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hari moldatzeko, bere efektuak murrizteko eta abisu goiztiarra lortzeko.



Helburu hau **gizarte baketsu eta inklusiboen sustapenean** oinarritzen da, **garapen jasangarria, guztiontzako justizia** eskuragarria eta maila guztietan arduratzen eta eraginkorrak diren instituzioen eraikuntza lortzeko. Gatazkaren bat jasaten duten herrialdeetan, Lehen Hezkuntzan eskola uzten duten haurren tasa % 50 izan zen 2011an, hau da, 28,5 milioi haurrek utzi zuten eskola

*Harremana duten xedeak*

- 
- 16.1 Nabarmen murriztea indarkeria-mota guztiak, eta horiei lotutako heriotza-tasak, mundu guztian.
  - 16.2 Amaiera ematea haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria- eta tortura-mota guztiei.
  - 16.9 Hemendik 2030era bitarte, denok nortasun juridikoa izan dezagula ahalbidetzea, batez ere, jaiotzen erregistroaren bidez..

# #03

## Euskadiko Gazteria 2021



## 3. Euskadiko gazteria 2021

2017ko apirilean Gazteen Euskal Behatokiak **Euskadiko gazteen diagnostiko bat** egin zuen, Eusko Jaurlaritzaren **2018-2021erako IV. Gazte Planaren erronkak eta helburuak** ezartzeko balio izan zuena. Gazte Planak lehentasunezko helburu eta esku-hartze ildoak finkatzen dituen gaitan aldaketen eta aurrerapenen jarraipena egin ahal izateko, Behatokiak txosten honetan honako arlo hauei buruz eskuragarri dauden azken datuak eskaintzen ditu: testuinguru demografikoa, hezkuntza, enplegua, emantzipazioa eta etxebizitza, osasuna, gizarte-ekintza eta berdintasuna, partaidetza, aisialdia, kultura eta kirola.


### 3.1. Joera demografikoak

#### Gazteek Euskadiko biztanleria osoan duten pisua oso txikia da, % 15etik beherakoa

2020ko urtarrilaren 1ean Euskadiko biztanleria 2.199.711 pertsonakoa zen eta horietatik **303.209 15 eta 29 urte bitarteko pertsonak ziren**: %51,2 gizonak (155.214) eta %48,8 emakumeak (147.995).

15 eta 29 urte bitarteko kolektiboaren barneko biztanleria-egiturak, bost urteko adin-taldeka banatuta, banaketa nahiko homogeneoa erakusten du, izan ere, 15-19 urteko pertsonak kolektiboaren %34,1 dira (103.343 pertsona), 20-24 urteko pertsonak %32,5 (98.502) eta 25-29 urteko pertsonak %33,4 (101.364 pertsona).

15 eta 29 urte bitarteko gazteak bost urteko adin-taldearen eta sexuaren arabera 2020an (guztizkoak)



Iturria: Eustat (Biztanleen Udal Estatistika)


Lurralde historikoen arabera, Euskadiko **15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren %51,1 Bizkaian** bizi da (154.927 pertsona), **%34,1 Gipuzkoan** (103.535 pertsona) eta gainerako **%14,8 Araban** (44.747 pertsona).

Joera demografiko horien ondorioz, gazteen indizea edo gazteen proportzioa biztanleria osoarekiko etengabe murriztu da azken urteetan Euskadin, 2020an %13,8koa izanik. Balio horrek agerian uzten du Euskadi jada



zaharkituta dagoen kontinente bateko, hots, Europako, gazte-indize baxuenetariko bat duen eskualdeetako bat dela, izan ere, 2019ko EB-28ko batez bestekoa %16,9 zen.

Euskadiko gazteen indizearen bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia Eustaten datuetatik abiatuta (Biztanleen Udal Estatistika)

## Euskadin jatorri atzerritarra duten gazteen populazioak gora egin du 2020an

**Euskadin bizi diren gazteen %15,2 atzerritarrek dira** (46.018 pertsona). Euskadiko gazte atzerritarren kopuruak nabarmen egin zuen gora 2012an baliorik altuenera iritsi arte. 2012tik aurrera beherakada bat eman da, baina 2019. eta 2020. urteetan zenbateko hori berriz ere nabarmenki hazi da.

Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko biztanle atzerritarren bilakaera (guztizkoak)




Iturria: Eustat (Biztanleen Udal Estatistika)

## Euskadin lehen seme-alabaren amatasunaren batez besteko adina ia 32 urtekoa da

Euskadiko **lehen semearen edo alabaren amatasunaren batez besteko adinak** ia 20 urte daramatza (2000tik) **30 urtetik gora, 2019an 31,9 urtera iritsi zelarik.**

Datu hori are esanguratsuagoa da ama gazteen nazionalitateari erreparatuz gero, izan ere, **espainiar nazionalitatea duten biztanleen artean, batez besteko adina 32,8 urtera igotzen da.** Atzerriko nazionalitatea duten emakume gazteen artean, amatasunerako batez besteko adina 28,0 urtekoa da. Hala ere, bitxia da atzerriko nazionalitatea duten emakume gazteek ere beren batez besteko amatasun adina atzeratzen ari direla ikustea, 2004an 26,8 urtekoa izatetik 2019an 28 urtekoa izatera igaro baita.

Amatasunaren batez besteko adinaren bilakaera Euskadin nazionalitatearen arabera (urteak)



Iturria: EIN, oinarritzko adierazle demografikoak


## 3.2. Hezkuntza

### Euskadin eskola-uzte goiztiarra %10etik behera kokatzen da 2019an

Eskola-uzte goiztiarraren tasak gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) amaitu duten eta inkesta egin aurreko lau asteetan ikasketekin edo prestakuntzarekin jarraitu ez duten 18 eta 24 urte bitarteko biztanleen ehunekoa neurtzen du.

Euskadin eskola uztearen tasak **bilakaera positiboa izan du azken urteetan**, 2009an %12,7koa izatetik 2019an %8,8koa izatera igaro delarik. Mutilen eta nesken arteko aldea 2009an %16,6koa izatetik %8,6koa izatera jaitsi da, 1,6 puntutan murriztuz (%9,6 mutilen artean eta % 8,0 nesken artean).

18 eta 24 urte bitarteko gazteen eskola-uzte goiztiarraren tasaren bilakaera sexuaren arabera (%)




Iturria: Eustat, (Europa 2020 Adierazleak)

**Euskadiko goi-mailako hezkuntzako titulazio-tasa %50 ingurukoa da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen artean**

**30 eta 34 urteko pertsonen goi-mailako hezkuntzako titulazio-tasak** (unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak) **gora egin du** azken hamar urteetan, 2009ko %41,3tik **2019ko %48,0ra**.

Goi-mailako hezkuntzako graduazio-tasaren bilakaera 30 eta 34 urte bitarteko gazteen artean sexuaren arabera (%)




Iturria: Eustat (Euskadi EB-28an)

## 2019an 35 urtetik beherakoek egindako 330 doktore-tesi onartu ziren euskal unibertsitateetan

**2003 eta 2019** bitartean, 35 urtetik beherakoek egindako **4.476 doktore-tesi** onartu dira euskal unibertsitateetan. **2019an 35 urtetik beherako pertsonak aurkeztutako 330 doktore-tesi** onartu dira, horietatik 199 emakumeek eginak izan direlarik eta 131 gizonak eginak. Azken hamarkadan, **emakume gazteek egindako tesien kopurua gizon gazteek egindakoa baino handiagoa** izan da urtero.

Euskal unibertsitateetan 35 urtetik beherakoek egindako tesi onartuen kopuruaren bilakaera sexuaren arabera (guztizkoak)




Iturria: Eustat (Hezkuntza-jardueren estatistika)

## Euskadiko gazteen erdia hirueleduna da

Euskadiko hirueletasun-tasa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egiten duten gazteen ehunekotik abiatuta kalkulatzen da. Adierazle honek geroz eta balio handiagoak jasotzen ditu ingelesaren ezagutza nabarmen handitu delako. **2019an, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen %49,3k adierazi dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egiten dutela**, 2004an baino 30 puntu gehiago.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du baliorik handiena (%59,2), alde nabaria egonik beste bi lurralde historikoekin euskararen eta ingelesaren ezagutza handiagoatik.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen hirueletasunaren bilakaera lurralde historikoen arabera (%)




Iturria: Eustat (*Bizi baldintzei buruzko inkesta*)

**Handitu egin da beraienak ez diren ideiak, sinesmenak eta balioak dituztenekin oso edo nahiko deseroso sentitzen diren pertsonen ehunekoa**

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko lau pertsonetatik bat oso edo nahiko deseroso sentitzen da bereak ez diren ideiak, sinesmenak eta balioak dituztenekin (%24,9). Datu horrek gora egin du 2016tik (%16,6) **2020ra (%24,9)**, izan ere, **bikoiztu egin da beren pentsaera desberdina dutenekin gustura ez daudela dioten emakumeen ehunekoa** (2016ko %14,2tik 2020ko %30,3ra).

Hala ere, adierazi behar da igoera emakumeen artean soilik erregistratu izanak lotura izan dezakeela **jarrera edo balio matxistak lehen baino gutxiago onartzearekin.**

Idea, sinesmen eta balio desberdinak dituztenekin oso edo nahiko deseroso sentitzen diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera (%)




### 3.3. Enplegua

#### 16 eta 29 urte bitarteko gazteen enplegu-tasa %40 inguruan mantendu da azken urteetan

Azken hamarkadan gazte landunen ehunekoak, hau da, lana dutenen ehunekoak, nabarmen egin du behera, izan ere, 2006an gazteen %54,9k lan egiten zuen bitartean, 2020an %36,5ak baino ez du lan egiten.

16 eta 29 urte bitarteko gazteen eta 16 urte eta gehiagoko biztanleria osoaren enplegu-tasaren bilakaera (%)



Iturria: Eustat (*Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA*)

Jarduera- eta enplegu-tasak alderatuz gero, ikus daiteke 2006an aldea 4,3 puntukoa zela, hau da, gazteen %4,3k lan egin nahi zuen eta ez zuen enplegurik. 2020an, jarduera-tasaren eta enplegu-tasaren arteko aldea 9,5 puntukoa da. Desberdintasun hori IV. Gazte Planaren oinarritzko lerroa den 2016ko datuekin alderatuz gero, nolabaiteko hobekuntza bat eman dela esan daiteke, izan ere gazteen %11,6k lan egin nahi zuen eta ez zuen enplegurik.


2020an gizonen eta emakumeen enplegu-tasa oso antzekoa da: gizon gazteen %35,6ak eta emakume gazteen %37,5ak lan egiten dute.

#### Lanbide Heziketako ikasketak egin ondorengo laneratzea oso handia da 2019an, %82,6ko enplegu-tasarekin ikasketak urtebete lehenago amaitu zituztenen artean.

2019an **Lanbide Heziketako erdi-mailako edo goi-mailako ziklo bat urtebete lehenago amaitu zuten eta ikasten jarraitu ez zuten pertsonen okupazioa %82,6ra iritsi da**, aztertutako denbora-lerroko daturik onena.

Bestalde, **2015az geroztik, Lanbide Heziketa** egin duten **gizonen laneratze-tasa** ikasketa-maila bera duten **emakumeena baino zertxobait handiagoa da**.

Lanbide Heziketako promozioen okupazio-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta urtebetera sexuaren arabera (%)




Iturria: Lanbide (Lan-bizitzan sartzeari buruzko estatistikak: Lanbide Heziketako 2018ko promozioa)

**2019an unibertsitatea hiru urte lehenago amaitu zutenen enplegu-tasa %84koa da**

Unibertsitate-ikasleen lan mundurako sarrera ez da titulazioa lortu ondorengo urtean aztertzen Lanbide Heziketaren kasuan bezala, baizik eta ikasketak amaitu eta hiru urtera. Hori dela eta, ez da gomendagarria Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleen enplegu-tasa zuzenean alderatzea.

2019an egindako inkestaren arabera **2016ko unibertsitate-promozioko landunen ehunekoa %84koa da**, azterketa ikasketak amaitu eta hiru urtera egiten delarik.

Euskal unibertsitateetako unibertsitate-promozioen enplegu-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta hiru urtera sexuaren arabera (%)



Iturria: Lanbide (Lan-bizitzan sartzeari buruzko estatistikak: 2016ko unibertsitate-promoziua)


## 2020an 16 eta 29 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa %22,2ra igo da

**2020. urtea 16 eta 29 urte bitarteko gazteen %22,2ko langabezia-tasarekin amaitu zen.** Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren arabera kalkulatzen da, hau da, lanean ari den edo lan egin dezakeen eta inkesta egin aurreko lau asteetan lana bilatzeko kudeaketaren bat egin duen biztanleriaren arabera.

Azken hamarkadan zehar gazteen langabezia-tasak biztanleria osoarena bikoiztu du, eta 2017an eta 2018an bien arteko aldea nabarmen murriztu bazen ere, badirudi 2020an arrakala handitu egin dela berriro.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, Euskadiko gazteen langabezia-tasak gora egiten duenean, handitu egiten da gizonen eta emakumeen arteko arrakala. Oro har, gizonek emakumeek baino langabezia-tasa handiagoa daukate.

16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera sexuaren arabera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

## 30 urtetik beherako gazteen iraupen luzeko langabezia-tasak behera egin du

Bestalde, **iraupen luzeko langabezia-tasa**, zeinak langabezia hamabi hilabete baino gehiago jarraian daramaten 16 eta 29 urte bitarteko biztanleria aktiboaren ehunekoak adierazten duen, **erdira jaitsi da 2015 eta 2019 bitartean**. 2015ean tasa hori %10,7koa zen eta 2019an berriz, %4,4koa.

Egoera horretan dauden gazteen kopuru txikia dela eta beharrezkoa da emaitzak arretaz hartzea, datuek laginketa-akats oso handia baitute. Hala ere, badirudi joerak adierazle horrek behera egin duela adierazten duela.

Iraupen luzeko langabezia-tasaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko biztanlerian eta 16 eta 74 urte bitarteko biztanlerian (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)



## Enpleguaren behin-behinekotasunak behera egin du, 2019an 30 urtetik beherako soldatapeko gazteen %64,3ri eragiten dielarik

**16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen %64,3k aldi baterako kontratua du**, Euskadiko soldatapeko biztanle guztien %30,6aren aurrean. Tasa horrek bere ehunekorik txikiena 2009an izan zuen, krisiaren hasieran, eta ordutik gora egin du, gaur egungo %64,3ko baliora iritsi arte. Hazkunde hori, oro har, biztanleria osoan gertatu bada ere, bereziki handia izan da gazteen kolektiboan.

Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko soldatapekoen eta 16 urteko eta gehiagoko soldatapeko guztien behin-behinekotasun-tasaren bilakaera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

## 16 eta 29 urte bitarteko gazteen lanaldi partzialeko lana %30aren inguruan egonkortu da azken urteotan

**Lanaldi partzialeko enplegu-tasak**, astean 30 ordutik behera lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen ehunekoa islatzen duena, **gora egin du 2020an %32,4ra iritsi arte**.

Gizon eta emakume gazteen arteko aldea nabarmena da. Emakume landunen %37,2k lanaldi partzian lan egiten du, gizonen kasuan aldiz ehuneko hori %27,5koa da.

Lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen artean sexuaren arabera (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

## Lanean ari direnen artean bat datorren enpleguak gora egin du: 16 eta 29 urte bitarteko 10 gaztetik 7k burututako ikasketekin lotutako lana dute

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen %67,8k dio daukaten lana oso edo nahiko lotuta dagoela burututako ikasketekin, gizonek emakumeek baino pixka bat gehiago (%70,8 eta %64,7, hurrenez hurren 2020an).

Okupazio nagusi gisa lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen bat datorren enpleguaren bilakaera sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko Gazteria segida, Emantzipazio segida eta Euskadiko 2020rako gazteen datuen aurrerapena*)

## Norberaren konturako lana %5etik behera dago 20 eta 29 urte bitarteko gazteen artean

20 eta 29 urte bitarteko gazte landunen artean norberaren konturako enpleguaren ehunekoa, hau da, autonomo edo enpresaburu gisa lan egiten dutenen ehunekoa %4,8koa da, EB-28ko herrialdeen batez bestekoa baino txikiagoa (%6,4).

20 eta 29 urte bitarteko biztanleen norberaren konturako enpleguaren bilakaera Euskadin eta EB-28an (%)




Iturria: Euskal Gazteriaren Behatokia (*Euskal Gazteria segida eta Emantzipazioa segida*), Saileko Estatistika Organoak emandakoak 2019ko Lan Merkatuaren Erroldaren datuak eta EUROSTAT Europako Estatistika Bulegoaren datuak (*Gazteriaren Estatistikak, Youth data*)

## Laneko istripu-tasak era nabarmenean egin du behera azken hamarkadan

**16 eta 34 urte** bitarteko biztanleria okupatua baxa eragin duten **lan-istripuen kopurua nabarmen jaitsi da** adin bereko 1.000 pertsona landuneko 2006ko datuekin alderatuta. 2019an datu hori 43,8koa izan da 1.000 biztanleko.

Istripu-tasa askoz handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, neurri handi batean ordezkari handiena duten sektoreen motagatik, hala nola, industria eta eraikuntza.

Lanean ari diren 16 eta 34 urte bitarteko gazteen lan-istripuen indizearen bilakaera sexuaren arabera (tasa 1.000 biztanleko)




Iturria: Euskal Gazteriaren Behatokia OSALANen (Lan-istripuen estatistikak) eta EUSTATen (*Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA*) datuetatik abiatuta

## 3.4. Emantzipazioa eta etxebizitza

### Gazteek gurasoekin bizitzeari uzten dioten batz besteko adina 30 urtekoa da

2019an euskal biztanleriaren emantzipatzeko batez besteko adina 30 urtekoa da (zehazki 30,2 urtekoa), 18 eta 34 urte bitarteko gazteek emantzipatzeko egokitzat jotzen duten adina baino sei urte handiagoa (23,9 urte batez beste 2017an). Emantzipatzeko batez besteko adin hori Europako batez bestekoa baino lau urte beranduago ematen da (25,9 urte).

### Emantzipatzeko batez besteko adina Euskadin eta EB-28an 2019an (urteak)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa* segida) eta EUROSTAT (Gazteriaren Estatistikak, Youth data)

### 18 eta 34 urte bitarteko Euskadiko pertsonen emantzipazio-tasa %38,5koa da

**Adin-tarte horretan, gazteen erdia baino gutxiago daude emantzipatuta.** Nolanahi ere, adinaren arabera alde handiak daude: 25 urte bete aurretik Euskadiko gazteen %7,4 baino ez dago emantzipatuta; 25 eta 29 urte artean %42,5; eta 30 eta 34 urte artean, gehienak emantzipatuta daude (%73,2). 18 eta 34 urte bitartean, emakume gehiago daude emantzipatuta (%43,0) gizonak baino (%34,1).

### 18 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren emantzipazio-tasa sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa segida*)

### Hipotekaren edo alokairu-errentaren ordainketak 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteei soldataren erdia baino zertxobait gehiago suposatzen die

2019an **18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazte batek**, batez besteko soldata bat izanik, etxebizitza bat adierazitako batez besteko prezioan erosteko **soldataren %55,1 erabili beharko luke hipoteka-mailegu baten lehen kuota bakarrik ordaintzeko** (urte horretan kontratatutako hipoteka-kredituen batez besteko iraupen-baldintzekin eta interes-tasekin); horri etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua deritzo. Alokairuaren alde eginez gero, hileroko ordainketa antzekoa izango litzateke, izan ere, 18 eta 34 urte bitarteko langile batek, batez besteko soldata badu, soldataren % 50,4 erabili beharko luke alokairu-errenta ordaintzeko.

18 eta 34 urteko soldatapeko pertsona batek hileko hipoteka-kuota edo alokairu-errenta bakarrik ordaintzeko erabili beharko lukeen soldataren ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa segida*)

### Alokairua da 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen ia erdiak emantzipatzeko erabiltzen duen aukera

**Alokairuan emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoak nabarmen egin du gora azken hamabost urteetan:** 2006an alokatutako etxebizitza batean bizi zen emantzipatutako gazteen zenbatekoa soilik %19,0koa zen bitartean, **2019an ehuneko hori %45,1ra igo da.**

Alokairu-erregimenean emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoaren bilakaera Euskadin (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa segida*)

### 3.5. Osasuna

#### Gazte gehienek uste dute euren osasuna ona dela, nahiz eta ia bost gaztetik batek osasun-arazo kronikoak dituen eta hamarretik ia batek antsietatea eta/edo depresioa duen

Euren osasuna erdipurdikoa, txarra edo oso txarra dela uste duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa guztizkoaren %2,4 baino ez da. Emakume gazteek gizonek baino ehuneko handiagoan osasun txarra dutela adierazten duten arren, ehunekoak hain baxuak izanik sexuen araberako aldea ez da bereziki esanguratsua.

Osasun txarraren prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen artean (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*EAEko Osasun Inkesta segida*)

**Euskadiko gazteen % 8,3k antsietate- edo depresio-sintomak izan ditu kontsultaren aurreko lau asteetan** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestaren arabera. Emakume gazteen ehunekoa %11,4raino iristen da; gizon gazteen artean berriz, txikiagoa da antsietate- edo depresio-sintomen presentzia (%5,1).

Antsietate- eta depresio-arazoaren prebalentziaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko gizon eta emakume gazteen artean (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko Osasun Inkesta segida)

### Hamar gaztetik zortzik baino gehiagok jarduera fisiko osasungarria egiten dute

15 eta 29 urte bitarteko gazteen **%86,3k** dio **jarduera fisiko osasungarria egin dutela, neurritz edo intentsitatez**, kontsulta egin aurreko astean. Gazteen jarduera fisikoak, kirola egitea baino modu zabalagoan ulertuta, gora egin du 2007tik (%67,6) 2013ra (%75,3) eta are gehiago 2018ra (%86,3).

Jarduera fisiko osasungarria egiten duten gizon gazteen ehunekoa emakumeena baino zertxobait handiagoa da eta jarduera fisikoa zertxobait hedatuago dago 25-29 urteko adin-taldean.

15 eta 29 urte bitarteko gazteek jarduera fisiko osasungarria egiteari dagokionez dituzten aldeak sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (EAEko 2018ko Osasun Inkesta)

## Gazteen obesitate-tasak behera egin du 2013 eta 2018 artean

**15 eta 29 urte bitarteko gazteen %4,2ak obesitatea dauka**, hau da, euren gorputz-masaren indizea 30 baino handiagoa da. Obesitate arazoak dituzten gazteen ehunekoa 2002tik (%3,4) 2007ra (%4,2) eta 2007tik 2013ra (%5,4) igo egin zen, **2018an aldiz zenbateko hori berriro %4,2ra jaitsi da**. Nolanahi ere, obesitatea duten gazteen ehunekoa Euskadiko biztanleria osoaren batez besteko ehunekoa (%12,5) baino dezente txikiagoa da.

Obesitate-tasaren bilakaera 15 eta 29 urteko gazteen artean eta Euskadiko biztanleria orokorrarekiko alderaketa (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*EAEko Osasun Insketa segida*)

## Bost gaztetik batek alkohol gehiegi edo arrisku handiegian kontsumitu du inkesta egin aurreko hilabeteko egunen batean

**2017an** (Eusko Jaurlaritzaren EAEko Adikzioen gaineko inkesten azken txostena) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen **%20,3k alkohol gehiegi edo arrisku handiegian kontsumitu zuen inkesta egin aurreko hilabetean**. Horrek esan nahi du hilabete horretako egunen batean (laneguna zein asteburua izan) 65 gramo alkohol baino gehiago kontsumitu zituela (zortzi garagardo kaña baino gehiago, adibidez).

Aurreko hileko egunen batean alkohol gehiegi edo arrisku handiegian kontsumitu duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta Drogak segida eta Euskadiko Adikzioen 2017ko Inkesta*)



## Tabakoaren kontsumoak behera egin du eta 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen batez bestekoaren azpitik jarraitzen du

15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia bosten bat ohiko tabako-erretzaileak dira (%18,5), mutilen eta nesken artean ia alderik ez dagoelarik (% 18,9 eta % 18,2, hurrenez hurren).

15 eta 29 urte bitarteko ohiko erretzaileen ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta Drogak segida eta Euskadiko Adikzioen 2017ko inkesta*)

## Kalamuaren ohiko kontsumoa ere nabarmen jaitsi da eta balio egonkorretan mantendu da 2012 eta 2017 artean

**2017an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen %4,2k adierazi zuten kalamua egunero edo ia egunero (asteen lau egunetan edo gehiagotan) erre zuela inkesta egin aurreko hilean.** Alkoholarekin gertatzen den bezala, kalamuaren kontsumoa zabalduagoa dago gizon gazteen artean (%7,3) emakume gazteen artean baino (%1,0).

Kalamua egunero edo ia egunero kontsumitzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen eta biztanleria osoaren ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta Drogak segida eta Euskadiko Adikzioen 2017ko Inkesta*)

## 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %17,5ak arriskuko sexu-harremanen bat izan du azken urtean

**2020an 15 eta 29 urte bitarteko nesken %18,6k adierazi zuen aurreko urtean nahi gabeko haurdunaldia izateko edo sexu-transmisioko gaixotasunen bat hartzeko arriskua zekarren sexu-harremanen bat izan zutela.** Adin bereko mutilen kasuan, ehunekoa zertxobait txikiagoa da, %16,4koa.

20 eta 24 urte bitarteko gizonen eta emakumeen kolektiboa da arriskuko sexu-harremanak neurri handiengan izan dituen (% 19,4).

Kontsulta egin aurreko urtean arriskuko sexu-harremanen bat izan duten 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen ehunekoa sexuaren eta adin-taldean arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteriaren 2020rako datuen aurrerapena)

## Nerabeen haurdunaldi-tasak behera egin du

Nerabeen haurdunaldi-tasa (urte bateko jaiotza-kopuruaren eta 15 eta 17 urte bitarteko neska nerabeen haurdunaldiaren borondatezko etenduren kopuruaren gehikuntza, adin-talde bereko 1.000 emakumeko) 5,1ekoa zen adin-talde horretako 1.000 emakumeko 2018an.

15 eta 17 urte bitarteko neska nerabeen haurdunaldi tasaren bilakaera Euskadin lurralde historikoaren arabera (1.000 neska nerabeko tasa)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren (*Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa*) eta Eustaten (*Biztanleen udal-estatistika*) datuetatik abiatuta

### Azken hamarkadan nabarmen jaitsi dira zirkulazio-istripuek eragindako gazteen heriotzak

2019an trafiko-istripuegatiko heriotza-tasa 15 eta 29 urte bitarteko gazteetan 1,0 pertsonakoa da adin-tarte horretako 100.000 gazteko. Azken urteetan tasa horrek nabarmen egin du behera, 2003an 17,9koa izatetik 2019an 1,0koa izatera igaro baita.

Bere buruaz beste egitegatiko edo trafiko istripuegatiko heriotza-tasen bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen artean (100.000 gaztekiko tasak)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Hilkortasun erregistroa*)

Bi kasuetan tasak handiagoak dira gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino: 2019ko trafikoagatiko heriotza-tasak 100.000 biztanleko 2,0koak dira gizon gazteen artean eta 0,0koak emakume gazteen artean.

Suizidioaren kasuan, adin bereko 100.000 gizon gazteekiko tasa 6,0koa da, eta emakumeena, berriz, 2,1ekoa adin bereko 100.000 emakumeekiko.


### 3.6. Gizarte-ekintza eta berdintasuna

#### 16 eta 29 urte bitarteko 10 pertsonatik 3k baino ez dituzte 600 euro baino gehiago hilean

**2020an 16 eta 29 urte bitarteko gazteen %44,6k**, hau da, ia erdiak, **300 euro baino gutxiago dituzte hilean**; %13,1ek 301 eta 600 euro artean; % 10,1ek 601 eta 900 euro artean; % 9,5ek 901 eta 1.200 euro artean eta % 11,7k 1.200 euro baino gehiago. Gainerako %10,8ak ez du erantzuten hilean batez beste duen diruari buruz galdetu diotenean.

Datu horien arabera, **2020an 16 eta 29 urte bitarteko gazteen herenak baino zertxobait gutxiagok dituzte hilean 600 euro baino gehiago** (%31,3).

Enplegu-tasaren eta hilean 600 euro baino gehiago dituzten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioaren segida) eta Eustat (BJA)

**Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoak gora egin du krisi ekonomikoaren ondorioz**

**Benetako pobrezia-egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa** (adin horretako gazte guztiekiko) **%9,2 zen 2018an**. Eusko Jaurlaritzaren *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren* metodologiaren arabera, benetako pobrezia elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik (diru-sarrerak eta ondarea) ez izatearen inguruabarrak jasotzen ditu.

Benetako pobrezia-egoeran dauden 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren bilakaera lurralde historikoen arabera (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (*Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta segida*)

## 15 eta 29 urte bitarteko 1.000 emakumetik 9,2k jarri zuten salaketa 2019an, 2009tik izandako tasarik altuena

**Emakumeen aurkako indarkeriaren tasa orokorra, 2019an, 9,2koa da 15-29 urteko 1.000 emakumeko.** Tasa horrek adierazten du zenbat emakumek jarri duten salaketa (edo salaketa bat baino gehiago) genero-indarkeriatik, adin-talde bereko 1.000 emakumeko.

**Emakume gazteei** dagozkien tasak **29 urtetik gorako emakumeenak** baino altuagoak dira serie osoan zehar. Horrek ez du esan nahi, nahitaez, emakume gazteek genero-indarkeria handiagoa jasaten dutenik; aitzitik, egoera horiek neurri handiagoan salatzen dituzte, tasak arrazoi horrengatik salaketa jarri duten emakumeak zenbatzen baititu.

Emakumeen aurkako indarkeriaren tasaren bilakaera 15-29 urteko eta 30-30 urteko eta gehiagoko emakumeen artean (tasa 1.000 biztanleko)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila

## Hiru emakume gaztetik batek dio gizonak aukera gehiago dituela enplegua lortzeko, kualifikazio bera izan arren

Kualifikazio eta esperientzia bera duen gizon batek eta emakume gazte batek hautatzen duten hautaketa-prozesu baten aurrean, **2020an, emakumeen % 33,6k uste du bere aurkari maskulinoak berak baino aukera gehiago** izango lituzkeela, **gizon izateagatik, gizonen % 6,7k iritzi bera** baitute. Emakume gazteen % 5,5ek eta gizon gazteen % 13,8k soilik uste dute emakumeak aukera gehiago izango lituzkeela emakume izateagatik.

Lana lortzeko diskriminazio-sentsazioaren bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)


### 3.7. Parte-hartzea, balioak eta kontsumoa

#### 15-29 urteko gazteen asoziazionismo-tasak gora egin du

2016an, **Euskadiko gazteen % 46,2 elkarteren bateko kide ziren**, batez ere **kirol edo mendikoak** (% 23,8), jolasekoak (% 12,7), kulturalak edo artistikoak (% 8,0), gazteak edo aisialdikoak (% 7,8) eta musika-bandak edo -taldeak (% 5,3). Gainerako elkarte-motek gazteen % 5 baino gutxiago biltzen dute.

Kirol-elkarteetan gizonen presentzia handiagoa denez, gizon gazteen asoziazionismo-tasa askoz handiagoa da emakume gazteena baino (% 51,7 eta % 40,5, hurrenez hurren).

15-29 urteko gazteen asoziazionismo-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

## Politikarekiko interesa handitzen jarraitzen du 15-29 urteko pertsonen artean

**2020an, gazteen erdiek diote politikan oso edo nahiko interesatuta daudela ( % 51,4).** 2008. urtearekin alderatuta, ia hirukoiztu egin da interes handia edo nahikoa interes duten gazteen ehunekoa. COVID-19ri buruzko erabaki politikoen jarraipenak eragina izan dezake, neurri handi batean, interesaren gorakadan, eta, nolana ere, goranzko joera izan du azken urteotan.

15-29 urteko gazteen politikarekiko interesaren bilakaera, sexuaren arabera ( %)




Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

## 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiek baino gehiagok modu aktiboagoan parte hartu nahi dute gai publikoetan

**2020an, 30 urtetik beherako gazteen % 55,1ek adierazten du gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko nahia.** Ehuneko hori, alde handiz, 2000. urteaz geroztik galdera horrekin erregistratutako handiena da.

15-29 urteko gazteen arazo publikoetan modu aktiboagoan parte hartzeko gogoaren bilakaera, sexuaren arabera ( %)



Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

## Euskadiko gazteen % 29,8k modu jasangarrian kontsumitzen du

Kontsumo jasangarriaren indizea egiteko, ingurumena zaintzeari lotutako honako jokabide hauek hartzen dira kontuan: **etxeko zaborra hondakin-motaren arabera bereiztea** (2016an, gazteen % 63,5ek egin ohi zuen), **ur-kontsumoa mugatzen saiatzea** ( % 60,7), **garraio publikoa** erabiltzea edo autoa partekatzea ( % 58,9), **erosketa-poltsa** edo orga bera eramatea bilgarriak gutxi egiten direnean ( % 53,8) eta **gutxi ontziratutako edo gutxi paketatutako produktuak erosten** saiatzea ( % 23,4).

Pertsona batek modu jasangarrian kontsumitzen duela uste izateko, iraunkortasunarekin lotutako bost jokabide horietatik gutxienez lau egin behar ditu. 2016an, kontsumo jasangarria egiten zutenen ehunekoa % 29,8 zen, 2012an baino zortzi puntu gehiago ( % 21,4). Emakume gazteek gizonek baino modu jasangarriagoan kontsumitzen dute.

Kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera ( %)




Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

## Azken urteotan gora egin du garraibide jasangarrien eguneroko erabilerak: garraio publiko kolektiboa eta bizikleta

2016an, **15 eta 29 urte bitarteko** Euskadiko gazteen **% 39,8k adierazi zuen garraio publiko kolektiboa** (autobusa, trena, metroa, tranbia) **egunero edo ia egunero erabiltzen** zuela. Ehuneko hori 2012an erregistratutakoa ( % 37,2) eta 2008an erregistratutakoa ( % 33,4) baino handiagoa zen.

Gazteek bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzeak ere gora egin du, ohiko joan-etorriak egiteko. Ehuneko hori % 5,3koa zen 2008an, % 9,6koa 2012an eta % 13,4koa 2016an.

Garraio publiko kolektiboaren eta bizikletaren eguneroko edo ia eguneroko erabileraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean ( %)



Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)




### 3.8. Aisia, kultura eta kirola

#### Gazteen ia erdiek arte-jardueraren bat egiten dute

**2018an, 15-29 urteko gazteen % 44,0k** adierazi zuen azken urtean honako **jarduera artistikoren bat egin zuela**: argazkigintza, musika-tresna bat jotzea, margotzea, idaztea, dantza, bideoa, abesbatza edo musika-talde batean abestea, ikus-entzunezko produktuak, antzerkia, bertsolaritza edo beste arte plastiko batzuk.

Portzentaje hori nabarmen handiagoa da emakumeen artean ( % 51,4) gizonen artean baino ( % 37,1), eta emakumeek arte-jardueretan duten parte-hartze handiagoa urtero ikusten da.

Azken urtean jarduera artistikoak egin dituzten 15-29 urteko Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera ( % )




Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (EAEko kulturako ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko 2007-2008 Estatistikan eta EAEko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko Inkestan oinarrituta emandako datuak)

#### Euskadiko gazteen ia erdiak aldian-aldian egiten du kirolen bat

**Euskadiko gazteen % 49,0k asteen hirutan edo gehiagotan egiten du kirolen bat**, eta ehuneko horrek gorakada handia izan du 2012 eta 2016 artean, % 40,2tik lehen aipatutako baliora.

Hala ere, gizon eta emakume gazteen arteko aldea mantendu egiten da, nahiz eta **emakumeen kirol-jarduera areagotu egiten den**. Baina argitu behar da aldea, batez ere, futbolaren praktikaren desberdintasunengatik gertatzen dela; izan ere, gizon gazteen % 29,4k dio futboleari dela, eta emakume gazteen % 3,1ek baino ez. Futbola azterketatik kanpo uzten badugu, emakume eta gizon gazteen kirol-jarduera ez da hain desberdina.

Kirol-jarduera erregularraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren eta adin-taldearen arabera ( %)




Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea)

### 15-29 urteko gazteen erdiak baino gehiagok diote libururen bat irakurri dutela aisialdiagatik azken hilabetean

Euskadiko gazteen irakurtzeko ohiturak ia hamar puntu egin du gora 2008tik 2018ra: % 44,6k zioten libururen bat irakurri zutela aisialdiagatik 2008an, eta % 52,2k, berriz, 2018an.

Serie osoan zehar ikusten da irakurtzeko ohitura zabalduago dagoela emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino ( % 61,0 eta % 44,0, hurrenez hurren, 2018an).


Irakurtzeko ohituraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera ( %)



Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (EAEko kulturako ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko 2007-2008 Estatistikan eta EAEko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko Inkestan oinarrituta emandako datuak)

Nahiz eta 2008an **adin-talde txikiena (15-19 urte)** irakurtzeko ohitura txikiena zutenak izan, **2018an** egoera hori alderantzikatu egin da, eta orain haiek dira **gehien irakurtzen dutenak**.

Irakurtzeko ohituraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, adin-taldean arabera ( %)




Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (EAEko kulturako ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko 2007-2008 Estatistikan eta EAEko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko Inkestan oinarrituta emandako datuak)

### Euskaraz irakurtzeko ohiturak behera egin du azken urteotan

**Euskaraz irakurtzeko ohiturak apur bat behera egin du** azken urteotan: 15 eta 29 urte bitarteko gazte euskaldunen % 43,5ek irakurri zuten libururen bat euskaraz 2008an, inkesta egin aurreko 3 hilabeteetan, eta **% 38,7k 2018an**.

Euskaraz irakurtzeko ohituraren bilakaera 15-29 urteko gazte euskaldunetan, adin-taldean arabera ( %)




Iturria: gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak seriea) eta Kulturaren Euskal Behatokia (EAEko kulturako ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko 2007-2008 Estatistikan eta EAEko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko Inkestan oinarrituta emandako datuak)

## Lagunekin euskararen erabilerak gora egin du 16-24 urteko gazteen artean

**Lagunekin euskara erabiltzeak goranzko joera** izaten jarraitzen du gazte euskaldunen artean: **2004tik 2016ra bitartean, metatutako irabazia 10 ehuneko-puntu baino gehiagokoa da**, eta % 24,8tik % 35,3ra igaro da batez ere euskara edo euskara eta gaztelania berdina erabiltzen dituzten gazte euskaldunak, lagunekin harremanetan daudenean.

Lagunekin euskara erabiltzeak Gipuzkoan jarraitzen du nabarmentzen; izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 59,1ek lagunekin harremanetan jartzeko erabiltzen du. Ehuneko hori 2016an Bizkaian % 22,0koa zen eta Araban % 25,5koa.

Euskararen erabileraren bilakaera 16 eta 24 urte bitarteko gazte euskaldunen lagunekin, lurralde historikoaren arabera ( % )



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (Inkesta soziolinguistikoa)

Bildutako informazioaren arabera, Euskadiko gazteentzako erronka nagusiak IV. Gazte Planak aurreikusten dituenak izaten jarraitzen dute. Hemen aurkeztuko direnak:

Arloa	Erronkak
Enplegua	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteentzako lan aukerak handitzea, eta 20.000 euskal gazteri lehenbiziko lan-esperientzia ematea</li> </ul>
Etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Etxebizitza, ahal dela alokairuan, eskuratzeko bide ematea, benetako emantzipazio-adina euskal gazteek nahi dutenera hurbiltzeko</li> </ul>
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Balioen hezkuntzaren alorra lantzen jarraitzea</li> <li>Gazteen artean eleaniztasuna zabaltzea</li> </ul>
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteen egoera emozionala hobetzea</li> <li>Elikadura osasungarria hobetzea eta jarduera fisikoa sustatzea</li> <li>Sexu-transmisiozko gaixotasunetarako arreta eta prebentzioa</li> <li>Adikzioen eta gazteen osasunerako arriskutsuak diren jokabideen prebentzioa</li> </ul>
Acción Social e Igualdad	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gazte guztien gizarteratzea sustatzea, bereziki, enpleguarekin eta garapen pertsonalarekin loturan</li> <li>Gazteen artean berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea, sexua, arraza, erlijioa eta sexu-orientazioa aintzat hartu gabe, eta genero-indarkeriaren aurkako borrokari garrantzi berezia emanez</li> </ul>
Partaidetza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gero eta partaidetza eta ekimen handiagoa duen gazteria sustatu eta babestea</li> </ul>
Kontsumoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteen artean kontsumo arduratsua sustatzea eta horri buruzko hezkuntza ematea</li> </ul>
Mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Garraio publikoko aukerak gazteen behar eta itxaropenetara egokitzea</li> </ul>
Kultura	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aktiboki jarduera kulturalak gauzatzen dituzten gazteen kopurua handitzea</li> <li>Gazteei kultura-eskaintza eskuratzeko aukera ematea</li> </ul>
Aisialdia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aisiazko jardueretan euskararen erabilera sustatzea</li> </ul>
Kirola	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gazteen kirol-jarduerak sustatzea</li> </ul>

# #04

## 2021eko Jarduketa Plan Operatiboa



## 4. 2021eko Jarduketa Plana

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak, 2021ko jarduketa-plan eragilea **275 ekintza** biltzen ditu. Jarduera hauek burutzeko **219.520.994 €-ko aurrekontua aurreikusi da**.

Hurrengo taula honetan, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planak, 2021.urtean, ardatz estrategiko bakoitzean burutuko dituen ekintza kopurua eta aurrekontua sailkaatzen dira:

			
<b>1. ardatza</b>	<b>EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA</b>	<b>195.860.621 €</b>	<b>89%</b>
			<b>160</b> actuaciones
<b>2. ardatza</b>	<b>ONGIZATEA ETA BIZITZA OSASUNGARRIA</b>	<b>3.351.228 €</b>	<b>1,5%</b>
			<b>28</b> actuaciones
<b>3. ardatza</b>	<b>BERDINTASUNA ETA GIZARTERATZEA</b>	<b>14.835.794 €</b>	<b>7%</b>
			<b>30</b> actuaciones
<b>4. ardatza</b>	<b>GIZARTE-PARTAIDETZA ETA -KONPROMISOA</b>	<b>2.021.563 €</b>	<b>1%</b>
			<b>22</b> actuaciones
<b>5. ardatza</b>	<b>SOCIALIZACIÓN</b>	<b>3.451.788 €</b>	<b>1,5%</b>
			<b>35</b> actuaciones

Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren jarduera arloetara jaitsi ezker, 2021. urteko plan eragilea honela zehazten da:

	<b>Enplegua</b>	67.723.294 €	30,8%	85 ekintza
	<b>Etxebizitza</b>	46.238.000 €	21,1%	6 ekintza
	<b>Hezkuntza</b>	81.899.327 €	37,3%	69 ekintza
	<b>Osasuna</b>	14.835.794 €	6,7%	30 ekintza
	<b>Ongizatea eta bizitza osasungarria</b>	3.351.228 €	1,5%	28 ekintza
	<b>Partaidetza</b>	1.896.912 €	0,9%	16 ekintza
	<b>Kontsumoa</b>	124.651 €	0,1%	6 ekintza
	<b>Kultura</b>	672.421 €	0,3%	11 ekintza
	<b>Kirola</b>	935.620 €	0,5%	5 ekintza
	<b>Aisialdia</b>	1.843.747 €	0,8%	19 ekintza

Jarraian, 2021eko urteko plan operatiboan jasotako jardueren xehetasuna aurkezten da, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Planaren ardatz bakoitzeko.



# 1.ARDATZA

Emantzipazioa eta autonomia



# 1. ARLOA: Enplegua

<b>Helburu estrategikoa: Gerturatze eta abiadura handiagoa hezkuntza-eta lan-arloaren transitan</b>				
<b>Ildoa: Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea</b>				
<b>Jardueraren izena</b>	<b>Lehentasunezko jarduera</b>	<b>Gazteriarengan fokua duen programatutako aurrekontua</b>	<b>Magnitudearen adierazlea</b>	<b>Helburua</b>
Diru-laguntza Mondragon Unibertsitateari	✓	87.482,00 €	Gazteei arreta ematea	250
Diru-laguntza Deustuko Unibertsitateari	✓	166.138,00 €	Tituludunen edo amaitzeko prozesuan daudenen kopurua	450
Lanean hasteko azterketa - LH eta Unibertsitateak	✓	204.800,00 €	Egindako txostenen kopurua	130
Unibertsitateetan dauden laneko informazio eta orientazio-zerbitzuak, azken ikasturtean dauden edo unibertsitate-ikasketak egin berri dituzten unibertsitate-ikasleentzat (Euskal Herriko Unibertsitatea)	✓	262.448,00 €	Artatutako pertsonen kopurua	750
Analisia: Euskadiko gazteak lan-merkatuan 2019		Baliabide propioak	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
"Aurrera Begira: gazteen espektatiben adierazleak 2020" ikerketa		Baliabide propioak	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Telefono bidezko landa-lana, "Aurrera Begira: gazteen espektatiben adierazleak 2021" ikerketaren oinarri gisa		Baliabide propioak	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Euskadiko 2020ko gazteen egoeraren diagnostikoa.		Baliabide propioak	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
"Euskadiko III. Gazte Planaren esparru orokorra 2020: Gazteriaren arloko euskal estrategia" delakoaren eraginaren ebaluazioa.		Baliabide propioak	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Azterlana: Euskadiko Gazteak 2020		Baliabide propioak	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100
Azterlana: "Gazteen adierazleak 2021. Euskadiko gazteen panoramika "		Baliabide propioak	Jarduketaren betetze-maila: 0-100	100

STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) arloetan berrikuntza-proiektuak egitea	✓	350000	Parte hartutako zentro kopurua	Ikastetxe publikoak: 180
<b>Ildoa: Prestakuntza lan-merkatuaren eskaerari egokitzea</b>				
Hezibi programa: prestakuntza eta lana txandakatzea 30 urtetik beherako gazteentzat	✓	2.300.000,00 €	Hezibi programan sartuta dauden kontratatutako pertsonak	1000

### Helburu estrategikoa: Kalitate oneko enplegua duen gazte gehiago

#### Ildoa: Lehenengo lan-esperientziak ematea

Atzerrian enpresa eta erakundeetan praktikak egiteko "Global Training" bekak	✓	6.200.000 €	Beka kopurua	500
Nazioartekotze-bekak		5.000.000 €	Beka kopurua	125
Besteren konturako kontrataziorako laguntza-lerroa (LEADER)		16.875,00 €	Sortutako enplegu kopurua (gazteak)	4
Landa-eremuetan enplegu garbia sortzeko laguntza-lerroa (ez LEADER)		15.000,00 €	Sortutako enplegu kopurua (gazteak)	5
Enplegurako prestakuntza (nekazaritza- eta itsas- eta arrantza-eremua)		84.500,00 €	Parte-hartzaile kopurua	4000
Nekazaritza-sektorerara eta nekazaritzako elikagaien enpresetara hurbiltzeko bekak		80.000,00 €	Parte-hartzaileen kopurua	30
Igarotze-bekak	✓	3.000.000,00 €	Beka kopurua	1500

Toki-eremuan gazteen emantzipazioa sustatzeko diru-laguntzak		1.150.000,00 €	Diruz lagundutako proiektuen kopurua	35
Joan-etorrietarako eta ekintzaitzarako bekak		2.252.000,00 €	Emandako beken kopurua	1050
Komisario berrien programa	✓	30.000,00 €	Urtean zehar parte hartu duten gazteen kopurua	3
Lankidetzeta-hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta kontsumo Sailaren eta Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Turismo Sailaren artekoa, ikasleen prestakuntza-praktikak egiteko	✓	25.000,00 €	Bekadunak	150
Diru-laguntza izenduna COREOGRAFIA (dantzaz Konpainia) elkartearen urteko programa finantzatzeko		82.000,00 €	Kontratutako dantzari gazteen urteko kopurua	14
6. Pabeloiko gazte konpainiarentzako laguntza		5.000,00 €	Kontratutako aktore gazteen urteko kopurua	12
Novia Salcedo diru-laguntza izenduna, Gazte Enpleguaren Hamarkada Adierazteko Nazioarteko Kanpainaren 2021 Ekintza Plana eta VIII Bilbao Youth Employment Forum egiteko		45.000 €	Jarduera eginda	Bai
Gazteak Kanpo Ekintzaren arloan prestatzeko bekak		72.000,00 €	Deitutako beken kopurua	8
<b>Ildoa: Esperientzia duten gazteen kontratazioa bultzatzea</b>				
Gazteak itzultzeko laguntzak, gazteak EAEko lantokietan kontratatuzko	✓	350.000,00 €	Kontratutako gazte langabeen kopurua	20
Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak	✓	Egiteke% gazteak	Laneratutako gazteen kopurua	

2017-2020ko Gazte Enplegurako Plan Operatiboaren toki-erakundeetako gazteak kontratatzea	✓	6.500.000,00 €	Kontratu kopurua:	400
Enpresa arruntean desgaitasuna duten pertsonen kontratazio mugagaberako diru laguntza		Egiteke% gazteak. Año anterior 140.000 € (imputable 20%)	Desgaitasuna duten gazteen kontratu mugagabeen kopurua	40
Gazteak itzultzeko laguntzak, gazteak EAEn kokatutako lantokietan kontratatzeko		Egiteke% gazteak	Itzuli diren gazteen kopurua.	
Lehen Aukera programa, LHko eta unibertsitateko tituludun gazteentzat. Gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko laguntzen deialdia		4.000.000,00 €	Kontratu mugagabeen kopurua:	80
<b>Ildoa: Gazteen enplegu-aukerak hobetzea</b>				
BEK beka		100.000,00 €	Esleitutako beken kopurua	5
Txanda-kontratua	✓	Egiteke% gazteak. Año anterior 625000	Guztira egindako txanda-kontratuen kopurua:	80
Laneratzeko enpresak sortzen eta mantentzen laguntzeko programa		Egiteke% gazteak. Año anterior el 23,6%	EEIn lan egiten duten gazteak	150
Prestakuntza Eusko Jaurlaritzaren/Hezkuntza Sailaren titulartasun juridikoko lanbide-heziketako ikastetxe publikoekin		Egiteke% gazteak	Prestatutako gazteak	500
Prestakuntza enplegu-nitxo berrietan		Egiteke% gazteak	Prestakuntza jaso duten gazteen kopurua	2000
Enplegurako berrikuntza- eta esperimentazio-programak		Egiteke% gazteak		
<b>Ildoa: Enplegarritasun-balditzak hobetzera bideratutako gaikuntza</b>				
Kualifikazio txikiko gazteen prestakuntza 2018-2021	✓	1.620.000,00 €	Prestatutako gazteak	200
Itsasoratu Programa		105.000,00 €	Gazte kopurua	28

**Ildoa: Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa**

GazteBizHitza - Ikasketei, lanari eta etxebizitzari buruzko orientazio eta aholkularitza zerbitzua gazteentzat		84.110,00 €	GazteBizHitza atarira egindako bisiten kopurua	130000
Enplegarritasun-prozesuetan orientazioa	✓	Egiteke% gazteak	Informazio eta orientazio ekintza pertsonalizatuetan artatutako pertsonen kopurua	3600
Hitzarmena Novia Salcedo Fundazioarekin		123.200,00 €	Gazteei arreta ematea	200
<b>Ildoa: Gazteentzako lan-aukerak sustatzea EAEko sektore estrategikoetan</b>				
Euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko zientzia-, teknologia- eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak	✓	1.775.600,00 €	Beka berrien kopurua	22
Merkataritza-ganberentzako diru-laguntza, "Euskal prestakuntza Retailen 2020" proiekturako		120.000,00 €	Talde-prestakuntzan parte hartu duten saltokien kopurua eta aholkatutako saltokien kopurua	72 90
Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzak, bereziki egoera ahulean dauden eremu eta udalerriei zuzenduta		3.000.000 €	Laneratutako gazte kopurua	300
Pasaiaiko, Ondarroako eta Bermeoko Itsas Arrantzako Institutu Politeknikoetan ikasketak egiteko bekak		140.500,00 €	Emandako beken kopurua	122
Bikaintek programa: doktorego industrialak egiteko laguntza-lerroa	✓	98.755,00 €	Lagundutako tesi industrialen kopurua	30
<b>Línea de intervención: Formación para la activación</b>				
Nekazaritza-, elikagai- eta itsas- eta arrantza-gaikuntzarako prestakuntza-programazioa 2018-2020	✓	Egiteke% gazteak	Prestatutako gazteak	70

Kontratazio konpromisoa dituzten prestakuntza-ekintzak	✓	Egiteke% gazteak	Prestatutako eta kontratatutako gazteen kopurua	200
Zentro pribatu eta publikoetako heziketa programak	✓	Egiteke% gazteak	Prestatutako gazteak	5000
Teleprestakuntza		Egiteke% gazteak	Prestakuntza jaso duten gazteen kopurua	500

## Helburu estrategikoa: Gazteriaren lan-baldintzak hobetzea

### Ildoa: Informazioa eta komunikazioa

Jardueraren izena	Lehentasunezko jarduera	Gazteriarengan fokua duen programatutako aurrekontua	Magnitudearen adierazlea	Helburua
Lehen eta Bigarren Hezkuntzan laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko plana	✓	Baliabide propioak	Sarrera kopurua webgunean	6000
Ikasleek OSALANera egindako bisitak, laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta dokumentazioa jasotzeko	✓	Baliabide propioak	LHko ikasleen kopurua	200
ADI Proiektua	✓	10.000,00 €	Adi proiektuan prestatutako LHko ikasleen kopurua	300



<b>Helburu estrategikoa: Gazte ekintzaile gehiago</b>				
<b>Ildoa: Bokazio ekintzailetza sustatzea</b>				
<b>Jardueraren izena</b>	<b>Lehentasunezko jarduera</b>	<b>Gazteriarengan fokua duen programatutako aurrekontua</b>	<b>Magnitudearen adierazlea</b>	<b>Helburua</b>
Musika konposatzeko laguntzak	✓	17.000,00 €	Gazte musikagileei emandako laguntzen kopurua	2
Antzerkirako testuak sortzeko laguntzak	✓	13.000,00 €	Antzerki-lanak idazten dituzten gazteei emandako laguntzen kopurua	2
Gidoi zinematografikoak sortzeko laguntzak	✓	26.000,00 €	Gidoiak idatzi dituzten gazteei emandako laguntzen kopurua	2
NOKA Mentoring Programa	✓	15.000,00 €	Urtean zehar parte hartu duten gazteen kopurua	1
Sorkuntza koreografikorako laguntzak (Dantzan Bilaka)		30.000,00 €	Koreografo gazteei emandako laguntzen kopurua	7
Gazteentzako literatura sortzeko laguntzak		16.000,00 €	30 urtetik beherakoei emandako diru-laguntza kopurua	2
Ipuin edo eleberri laburrak sortzeko laguntzak		16.000,00 €	30 urtetik beherakoei emandako diru-laguntza kopurua	2
Komikiak eta eleberri grafikoak sortzeko laguntzak		15.000,00 €	30 urtetik beherakoei emandako diru-laguntza kopurua	1

Album ilustratuak sortzeko laguntzak		15.000,00 €	30 urtetik beherakoei emandako diru-laguntza kopurua	1
--------------------------------------	--	-------------	--	---

Ildoa: Ekintzaileen ekimenak babestea				
Landa-eremuetako enpresentzako laguntza-lerroa (ez LEADER)		875.000,00 €	Laguntza jaso duten gazteen proiektuen kopurua	10
Start-up laguntza-lerroa (LEADER)		58.125,00 €	Laguntza jaso duten gazteen proiektuen kopurua	5
Landa-eremuetako enpresentzako laguntza-lerroa (LEADER)		840.000,00 €	Laguntza jaso duten gazteen proiektuen kopurua	12
Ekintzaileei laguntza integrala emateko zerbitzua: Gaztenek 2020 eta Geroa programak	✓	73.450,00 €	Ekintzaileen kopurua	250
Kultura ekintzailea		1.317,00 €	Parte-hartzaile kopurua	200
Txanda irekia		50.000,00 €	Onuradun kopurua	6
2015-2020 aldirako Euskadiko LGPren esparruan onartutako LEADER eremuan dauden landa-udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak		934.700,00 €	Lagundutako inbertsio kopurua	20
